

# Meme-lehiaketa

## Oinarriak

1. Meme bat zer den badakigu, ezta?: irudi bat eta testu bat elkartzea, emaitza ironikoa, kritikoa edota irri-emangarria izan dadin. Bada, horixe egin behar duzu lehiaketa honetan.
2. Mota guzietako memeak badira, mota guzietako gaien gainekoak. Lehiaketa honetarako, **hizkuntzen gaineko memeak** nahi ditugu, hitz-jokoak egiten dituztenak, hizkuntzen nolakotasunak komentatzen dituztenak edota hizkuntzak ikasteari buruz mintzatzen direnak.
3. Ez da erabil daitekeen tresna bakarra, baina web-gune honekin –<https://imgflip.com/memegenerator>– azkar eta erraz sortuko dituzu zure memeak.
4. Bidal ezazu zure memea helbide honetara: [eoipvdir@educacion.navarra.es](mailto:eoipvdir@educacion.navarra.es). Eta, memearekin batera, bertze dokumentu batean, idatz ezazu zein diren zure izen-deiturak, zer hizkuntza eta zer maila ikasten ari zaren, eta zein den zure irakaslea.
5. Memeak bidaltzeko epea **martxoaren 10ean** akituko da.
6. Zuzendariordeak memeak helaraziko dizkie Departamentuei –ez, ordea, egileen izen-deiturak–, eta Departamentu bakoitzeko bi irakaslek bere hizkuntzako memeak aztertu eta bi hoberenak hautatuko dituzte. Memearen kalitate teknikoa ez da kontuan hartuko; baloratuko dira originaltasuna, grazia eta ikuslea harritzeko gaitasuna.
7. **Departamentu bakoitzean bi irabazle izanen dira**, bat Aletik Blera bitarteko mailakoa, eta bigarrena, B2.1etik C2ra bitarteko mailakoa. Irabazle bakoitzak 40 euroko bonoa jasoko du material didaktikoa erosteko.